

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2642

113/2025 EBAZPENA, maiatzaren 30ekoa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Administrazioako taldeburu (Langileen Zerbitzua) lanpostu bat izendapen askez betetzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sarean.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko Administrazioako taldeburu (Langileen Zerbitzua) lanpostu bat hutsik egongo da. Hori dela-eta, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin, Zuzendaritza Gerentzia honek erabaki du lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea, honako oinarrien arabera:

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela frogatzen dutenek:

- a) Estatutupeko, funtzionario edo langile lan-kontratudun finkoa izatea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edozein zerbitzu-erakundetan eta lanpostua jabetzan edukitzea C2/D2 lanbide-taldean.
- b) C2/D2 lanbide-taldeko titulua edukitzea.
- c) Gutxienez 2 urteko lan-esperientzia izatea C2/D2 lanbide-taldean.
- d) 2. hizkuntza-eskakizuna (derrigortasun-data: 2005-06-01).
- e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Euskara Planaren gainerako betebeharrak betetzea.

2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

- a) Esperientzia, ezagutza edota prestakuntza izatea taldeak antolatzen eta kudeatzen.
- b) Ezagutzak izatea Giza Baliabideen kudeaketaren funtsezko arloetan.
- c) Administrazio- eta lan-arloko legeria eta araudia.
- d) Giza baliabideak kudeatzeko sistema informatikoa (SAP). Nominako, kontratazioaren kudeaketako, plantillako, karteldegietako eta gizarte-segurantzako moduluak.
- e) Curriculum vitaeko aplikazio informatikoak eta horren kudeaketa.
- f) Informatikako ezagutza aurreratuak (Word, Excel, Access, Querys...)
- g) Datuen babesaren gaineko ezagutza.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak (Araba kalea 43, 01006 Vitoria-Gasteiz). Horretarako 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran aurkeztu ahalko dira eskabideak.

Interesdunek Arabako Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea (Araba kalea 43, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin eta dokumentutako curriculum vitaearekin batera.

Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada-gokio, langile lan-kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentu guztien fotokopia konpultsatua.
- d) Merezimendu baloragarriak egiaztatzen dituzten dokumentu guztien fotokopia konpultsatua.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Curriculum Vitae aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan azaldu den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman beharko du eskabidean.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake, eta izangaiei horien berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatu-tako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta emango dira lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia hutsik uzteko kontuan hartutako arrazoiak.

6.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen ebazpenaren bidez amaituko da honen bidez hasitako prozedura (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren intranetean zein webgune korporatiboan argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 30a.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE.